Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

KULTURA SAILA

2141

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenarena: «Ebazpena, 2011ko otsailaren 24koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteren zuzendariarena, zeinen bidez Euskara eta Euskal Kulturako hamar irakurle hautatzeko deialdia irekitzen den, 2011-2012, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan Europako eta Ameriketako hamar unibertsitatetan aritzeko».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluak dioenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

2011ko apirilaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (66. zenbakia) Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteren zuzendariaren 2011ko otsailaren 24ko Ebazpena argitaratu da, zeinen bidez Euskara eta Euskal Kulturako hamar irakurle hautatzeko deialdia irekitzen den, 2011-2012, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan Europako eta Ameriketako hamar unibertsitatetan aritzeko. Goiko paragrafoan adierazitako moduko hutsak atzeman direnez, zuzendu egiten dira honen ondoren:

2011/1938 (6/12) orrialdean, 7.1 paragrafoko azken lerroaldean, honako hau dioenean:

«Eskabideak aurkezteko hamabost egun naturaleko epea egongo da, deialdi hau EHAAn argitaratzen den biharamunetik hasita»,

Honela esan behar du:

«Eskabideak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita».

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2141

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Resolución de 24 de febrero de 2011, de la Directora del Instituto Vasco Etxepare / Basque Institute, para la selección de diez lectores o lectoras de Lengua y Cultura Vasca para los cursos 2011-2012, 2012-2013 y 2013-2014 en diez universidades de Europa y América.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en la Resolución de 24 de febrero de 2011, de la Directora del Instituto Vasco Etxepare / Basque Institute, para la selección de diez lectores o lectoras de Lengua y Cultura Vasca para los cursos 2011-2012, 2012-2013 y 2013-2014 en diez universidades de Europa y América, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 66, de 5 de abril de 2011, se procede a su corrección:

En la página 2011/1938 (6/12), apartado 7.1 último párrafo, en el texto en euskera donde dice:

«Eskabideak aurkezteko hamabost egun naturaleko epea egongo da, deialdi hau EHAAn argitaratzen den biharamunetik hasita»,

debe decir:

«Eskabideak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita».